

## VULTOURIS IBILBIDEA: Zemeto (Nafarroa)

ZAILTASUNA:  
MODERATUA



Aparkalekutik, Eskilzarrako ordokiraino jaitsiko gara. Zemetoko pasabideraino jarraitu eta eskuinaldera joko dugu seinaleztatutako bidexkan zehar. Erdi hegaletik jarraituko dugu; bidea utzi eta behatoki txiki batera joateko aukera dugu, Belaguako ibarraren gaineko ikuspegi izateko. Bidera itzulita, ibilbidetik jarraituko dugu; sakan txiki bat zeharkatu eta aldapa txiki batetik errepidearen ondora aterako gara. Azkenik, errepidearekiko paralelo dagoen bidetik jarraituko dugu aterpetxera itzuli arte.

### IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 3,99 km  
Gutxieneko altitudea: 1.289 m  
Gehiengo altitudea: 1.427 m  
Gehiengo desnibela: 138 m

**Centro de Interpretación de la Naturaleza de Roncal**  
31415 RONCAL (Navarra)  
Tel.: (+34) 948 475 256  
it.roncal@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1686636>  
Argibide gehiago: [www.vultouris.net](http://www.vultouris.net) · [info@vultouris.net](mailto:info@vultouris.net)



Eremu horretako interesgarrietako bat dugu ibilbide hau, Belaguako ibarraren ikuspegi ederrak eskaintzeaz gainera, altuera eta zabaleragatik nabarmentzen diren pago zaharren multzo bat ere ikusiko baitugu han. Era berean, goi mendiko fauna ikusteko aukera dago; nabarmendu behar da sarriok ibiltzen direla eremu horretan.

Larrako Natur Erreserbako mugetan barna doa ibilbidea; Nafarroako gune babestu nagusietako bat da, eta horren barnean Ukerdi eta Aztaparretako erreserba integralak daude. Horregatik, bidetik atera gabe seinaleei jarraitzeko eskatzen diegu ibiltariei; gogoratu fauna eta flora zaintzea dela babes-neurri horien helburua, eta, horregatik, errespetuz jokatu behar dela, araudiarekin bat.

GESTIÓN AMBIENTAL  
DE NAVARRA S.A.



hoya de huesca  
Comarca Hoya de Huesca • Plana de Uesca

FONDO EUROPEO DE DESARROLLO REGIONAL - EFA 04/08

